

Gumersindoren paperak

FRANCOREN ARMADAK EGINIKO SARRASKIEN LEKUKOTASUNA. Gumersindo Lizarrakoa kaputxinoak Francoren Armadak fusilaturiko 300 preso konfesatu zituen. Lekukotasun lazgarriak bildu zituen bere egunerokoan.

Alberto Barandiaran | IRUÑEA

Hau da isiltzen diren istorio horietako bat. Halabeharrez isiltzen denetakoa. Badira biktimak eta errudunak, eta badira ikusle hutsak. Bada tokia, data, eta badira zirkunstantiak. Badira azalpenak. Baina, batez ere, bada ezkutatzeko gogo. Hori nahikoa balitz bezala zauria sendatzeko. Baina zauria beti irekitzen.

60 urte baino gehiago igaro dira 36ko gerratik, eta oraindik zauria hor. Oraindik mina. Eta oraindik ez dago dena kontatuta. Isiltasuna handiegia da. Oraindik borrokatu behar, borrokatu ere, argazki osoa ikusteko.

Hau da, ondoren datorrena, argazkiaren alde bat. Puzzlearen pieza bat. Txikia, baina garantzitsua. Oraindik ezezaguna. Ezkutatzeko gogo dela eta. Oraindik bizia, 60tik gora urte pasatuta ere. Oraindik hunkigarria (ze higatua, hitzal).

1936 da. Uztail bukaera. Kaputxino bat, Ledeatik bueltan, Erreniegan. Oinez. Lurrean, lur pilak. Zakur bat usain hartzen, zerbaitekin borrokan. Erlijiosoari beso bat iruditu zaio. Odola inguruan. Izua. Komentuan, isiltasuna nagusi, soilik Gipuzkoara joateko prestatzen ari diren erreketeen kantu eta oihu zirraragarriek hautsia. Gumersindok ezin du harrotasun hori eraman. Kritikatzan ditu, nagusiaren aurrean, ikusten eta entzuten diren basakeriak, eta erlijio jendearen gupida aldarrikatzen du. Nagusiak ez du gogoko. Arduradun militar eta politiko berriek ere ez, eta Zaragozara bidaliko dute. «Han nahiago», aitortu du kaputxinoak, «hemen, akusatzaile faltsuen artean baino».

56 urte ditu Martin Zubeldiak, Gumersindo Lizarrakoak. Zortzi anaia-arrebako familian jaioa, Nestor Iruñeko katedraleko kalonjea eta idazlea du anaia, eta Emiliana musikaria, arreba. Altsasuko, Hondarribiko eta Zangozako komentuetan izana, hainbat lanen egilea da, haien artean Adoingo Estebanen bizitzari buruzkoa.

Zaragozan, presondegian aurkeztu da berehala. Hiltzera doazenak konfesatu nahi dituela agertu du. Asko azken laguntza hori jaso gabe fusilatu dituztela entzun du. Onartu diote eskaintza, gogotik.

1937ko irailaren 22a. Hiru emakume hil behar dituzte gaur.



ZUBELDIA FAMILIA. Zubeldia familia, Antonio hil eta gero. Ezkerretik hasita lehena Emiliana, eserita ama, eta besoan duen eskua Nestorrena. Honen ondoan, Alejo. Eserita, Martin, eta zutik, Eladia.

«Gaitz handia egin behar du gero emakume batek fusilatua izateko», kaputxinoak bere golgorako. Celia, Margarita eta Simona. Lehen biek, alaba bana besoetan. Celiak «Durrutiren andrea» dela dio. Anarkista Zaragoza inguruko lurretan dabilela, borrokan. Haurrak Miserikordia etxera eraman nahi dituzte guardia zibilek, eta erotzen dira hirurak alabak kenduko dizkietela entzun orduko. Beraiekin fusilatzeke oihukatzen dute. Ez dizkietela lapurtuko.

Alabak izutzen dira guardia zibilekin. Urtea dute egina. Amaren arropen artean kiribiltzen dira.

Baina kendu dizkiete. Hilerriko bidean, andreak jauzi egin nahi izan dute kamioietatik. Behin baino gehiagotan.

Hilerrian, ehun soldadu. Ehun, hiru emakumerendako. «Gizase-meak, horiek? horiek tigreak dira!!», mespretxuz andreak.

Hormari begira jarri dituzte hirurak. Deskargarekin, txoriak asaldatu dira.

1937tik 1941era 300 preso baino gehiago konfesatu zituen Gumersindo Lizarrakoak. Gauean beti. Ordu txikietan beti. Goizaldera, gero, fusilamenduak. Beti hilerriarren hormaren aurka. Komentura bueltan, oharrak hartzen zituen, ahal zuenean. Aldarteak uzten zionean.

1937ko urriaren 11. Gaur, fusilatu bakarra. Asturiarra gizona. Min egiten dio Francoren erretratuak hor, gurutzea bera baino

ERBESTERATUA

Martin Zaragozara bidali zuten gerra piztu zenean, jazarraldiaren izenean egiten ari zirenekin oso kritikoa zelako

LEKUKOTASUNAK

Goizero, fusilatzerak kondenatuak konfesatu eta gero, oharrak hartu zituen bere kaieran, eta gero, memoriak idatzi

ARGITALPENA

Dokumentua argitaratzeko eta ordenako nagusien esku ez uzteko agindu zuen hil baino lehenago

altuago. «Ezin dut horrekin konfesatu». «Francoren erretratu hori ken liteke?», kaputxinoak guardiari. «Hori presondegiko zuzendariari eskatzeko gauza ez naiz. Ez naiz ausartzen», guardiak. Eta hor jarraitu du aberriaren salbatzailearen irudiak. Gurutzea baino gorago beti.

Gumersindoren familiak pairatu behar izan zuen zapalkun-

tza gogorra. Denak jeltzaleen ingurukoak ziren, eta Eladia eta Alejo —biak Martin baino gazteagoak—, EAJn afiliatuta zeuden. Biak preso hartu zituzten jazarraldiaren lehen egunetan. Arreba 1939an hil zen, presondegian. Azalpenik ez, beste askorekin bezala. Alejo atera zen. Nestor anaia, Apaiztegiaren errektore izandakoa, erbestera bidali zuten. Gerra bukaeran epaiketa izan zuen Burgosen, eta isuna ordaindu behar izan zuen libre ateratzeko. Emiliana arreba, hori Mexikon zen ordu-rako, piano errezitaldiekin Europa eta Amerika osoa zeharkatu eta gero.

1937ko azaroaren 15a. Preso 'voltierrezalea', matxino. «Ikusten? Bizkorra naiz, sendo. Hori dena, erlijiorik gabe. Zertarako behar dut, bada, erlijioa?». Eguneroko tema. Berak lasaitasuna eman nahi, bakea azken orduetan, eta haiek nahi ez. «Ez gutxietsi zeure burua, ez zaitez zaldiaren edo elefantearen parean jar». Predikuak atarramendurik ez ordea. «Fusilatzen nautenean, esaiezu mesedez lau tiro arimari emateko, bakean utziko naute horrela». Hormaren aurrean, «Gora FAI, Biba Errusia!!».

5.200 preso zeuden orduan Zaragozako presondegian, nahiz eta 200endako-edo presatua izan. Gehienak, arrazoi politikoengatik atxilotuak. Gumersindok, egunero, bisita. Instantziak bete, barkamen eskaerak bideratu, kalean bil-

tzen zituen diruekin janari eta arropak erosi. «Apezpikuren bat etorri izan balitz» idatzi zuen, atsekabeturik, «beste bizi poz bat jasoko zuten hemengo askok. Akaso batzuk ere salbatuko ziren...».

1937ko abenduaren 13a. Neska ziegan, bakarrik. Lurrera begira, balantzaka... «Ze urrun ekarri nauten ama!». Jertse zuria, mutrikuarra, 22 urte. Konfesatu beharrik ez. «Egunero konfesatzen naiz ezta». Ez defentsarik, ez akusaziorik, ez frogarik. Akusatzaileek, ziegan, pistola bular parean jarri eta delitua aitortzeko gaitzatu zioten, bestela pun. Delitua: Donostian hiru lagun salatu izana. «Sikiera egia balitz, baina nola etsi, gezurra izanda?», neskak kaputxinoari.

Nikolasak kendu du kolkotik santokristoa eta, musua jarrita, elizgizonari eman dio, amari igor diezaion. Hormaren kontra, jertse zuria nabarmentzen da. Hiru tiro gorrik zulatu dute.

30 pezeta eskatuta, Gumersindo Lizarrakoak hilobia erosi du, neskarendako. Eta gainerako fusilatu guztiekin mesedez ez lurperatzeko eskatu du. Zurezko gurutzetza egin, eta berak pintatu du, tinta urdinez, hildakoaren izena. Amari igorri dio santokristoa. Bueltan, amaren galdera: nola hil den Nikolasa, gaixotasunez edo bonbardaketa batean.

Handik hilabeteetara, lagun batzuen aitortpena. «Zuk konfesatu zenuen neska?». «Hark ez zuen, bada, hobenik. Berekin sukaldari zegoenak salatu zuen harako eta harako. Harremanetan zeuden eta... Gajoak salbatua beharko luke orain».

Hilerriko horman taulak jarri behar izan zituzten, tiro solteek hilarriak koskatzen zituzten eta. Fusilamenduak: izugarrikeria. Soldaduek beti gaizki apuntatzen zuten. Beti. Bost eta sei aldiz egin behar izan zuten, behin baino gehiagotan, azken tiroa. Odol feria ikaragarria. «Mussolinik ere ez zuela horrela egiten» aitortu zuen apaiz italiarrak. Eta ezin izan zuen berriro itzuli. Gauero, hala ere, Gumersindo han.

1938ko otsailaren 2a: Florian, Funeskoa, egun horretarako. Donostian bizi zen, eta gudarriekin borrokatu behar, Santoñan atzeman zuten arte. Zaragozan preso zela, nonbait Francoren aurka ozenki hitz egin, eta prozesatu eta hiltzera zigortu zuten. Kloroformo eskatu zuen gizonak, konortea apur bat lausotzeko, baina ez zioten onartu. Fusilei bizkar jarri zuten hasieran, baina be-